



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko azaroaren 30a

138. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—10-22/LEY-00015. Foru Lege proiektua, kanpoko nafar herritarrekiko harremani buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—10-22/MOC-00106. Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntzako zuzendaritzako osagarria egonkortzeko dagozkion prozedurak ezar ditzan. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (4. or.).

—10-22/MOC-00107. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da izapide egokiak egin ditzan vasco-navarro trenbideko Nafarroako tartea ondare materialeko kultur intereseko ondasun deklaratu. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (5. or.).

—10-22/MOC-00108. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan irizpide geografikoa ken dezan jaioberrien eta haurren ospitalearteko lekualdaketetarako. Cristina Ibarrola Guillén andreak, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (6. or.).

—10-22/DEC-00057. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

—10-22/DEC-00058. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu konpromiso irmoa duela eta babesten duela trafiko arloko transferentzia, Foru Hobekuntzaren esparruan. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—10-22/POR-00368. Galdera, Espainiako Gobernuak Félix Huarte nafarrari Lan Merezimenduaren Domina kentzeari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (9. or.).

—10-22/POR-00369. Galdera, Tracasa Diversari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (9. or.).

- 10-22/POR-00370. Galdera, erregimen frankistari laguntza edo sostengua eman zieten oi ohoreak eta kondekorazioak kentzeari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (10. or.).
- 10-22/POR-00371. Galdera, COP27an hartutako akordio eta konpromisoari eta haiek Nafarroan ezartzeari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (11. or.).
- 10-22/POR-00372. Galdera, hirugarren adinaren sektorearen hitzarmen kolektibo bat onesteari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (11. or.).
- 10-22/POR-00373. Galdera, Larrabideko atletismoaren arloko jarduketetarako 4 milioi euroko transferentziari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (12. or.).
- 10-22/POR-00374. Galdera, Nafarroari trafikoa transferitzea dela-eta Madrilgo Erkidegoko lehendakariak egindako adierazpeni buruzkoa. Ramón Alzoriz Goñi jaunak egin du (12. or.).
- 10-22/POR-00375. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmeneko maskara biltegiratuari irteera emateko egindako ekintzei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- 10-22/POR-00376. Galdera, Nafarroako kirolean indarkeria prebenitzeari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (13. or.).
- 10-22/POR-00377. Galdera, Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateari trafikoaren eskumena eskualdatzeko EH Bildurekin egindako akordioari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).
- 10-22/POR-00378. Galdera, albaramendu-delituaren aldatzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (14. or.).
- 10-22/POR-00379. Galdera, etxebizitza-parkea birgaitzeko laguntzen Biziberri planari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (15. or.).
- 10-22/POR-00380. Galdera, HUB Eatex Food programari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (15. or.).
- 10-22/POR-00381. Galdera, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 9ko 23/2018 Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (16. or.).
- 10-22/POR-00382. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. faseko proiektua exekutatzeko finantzaketa ereduari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (16. or.).
- 10-22/POR-00383. Galdera, Iruñeari hiriburutzat agiri emateari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (17. or.).
- 10-22/POR-00384. Galdera, Espainiako Gobernuarekiko akordioari buruzkoa, Foruzaingoaren jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien erregelamendu-proposamena Foruzaingoaren ordezkari sindikalei aurkezte alde-ara. José Suárez Benito jaunak egin du (18. or.).
- 10-22/POR-00385. Galdera, “Bai soilik da bai” legeari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (18. or.).
- 10-22/PES-00348. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen obrak lizitzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (19. or.).
- 10-22/PES-00349. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen proiektuari buruz hitz egite aldera Ebroko Konfederazio Hidrografiko lehendakariarekin egindako bileran Lurralde Kohesiorako kontseilaria egoteari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (19. or.).
- 10-22/PES-00350. Galdera, Frankismoarekin lotutako pertsonen gainean Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak onetsitako behin-behineko eroldari eta NUPEk pertsona horien beraien gainean prestatutako izendegiari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (20. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Mahaiko erabakia, Nafarroako Jarduera Ekonomikoko Lehen Sektoreari Nafarroako Parlamentuko Domina emateko (22. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**10-22/LEY-00015. Foru Lege proiektua, kanpoko nafar herritarrekiko harremani buruzkoa.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, honao erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Kanpoko nafar herritarrekiko harremani buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2023ko urtarrilaren 20ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua

2022ko azaroaren 11ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**10-22/MOC-00106. Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntzako zuzendaritzako osagarria egonkortzeko dagozkion prozedurak ezar ditzan.**

*IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita irakaskuntzako zuzendaritzako osagarria egonkortzeko dagozkion prozedurak ezar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ikastetxeetan, zuzendaritza-eginkizuna funtsezkoa da ikastetxeak berak ongi funtziona

dezan, curriculumaren zein antolaketaren ikuspegitik.

Beharrezko atala da baliabideak hezkuntza-jardueraren inguruan antolatzeko, eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea sustatzeko programazio didaktiko, plan eta proiektuen diseinuan eta garapenean.

Urtero, zuzendari-postuetarako hautagairik gabe egoten dira ikastetxe ugari. Agerikoa da diziplina anitzeko lan zaila dela, dedikazio handia eskatzen duena, eta hori ez dela behar bezala konpentsatzen, ez ekonomikoki, ez eta lana gauzatzeko ordu-murrizketen bidez ere.

Eginkizun hori gauzatzeko egokiazko soldata-osagarria finkatzea aitortza egokia izanen litzateke hain zaila den lan horrentzat.

Horregatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du dagozkion prozedurak ezar ditzan Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetako irakasleek zuzendaritza-karguetan jardutegatik jasotzen duten zuzendaritza-osagarria finkatze aldera.

Iruñean, 2022ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

## **10-22/MOC-00107. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da izapide egokiak egin ditzan vasco-navarro trenbideko Nafarroako tartea ondare materialeko kultur intereseko ondasun deklaratu dezaten.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita izapide egokiak egin ditzan vasco-navarro trenbideko Nafarroako tartea ondare materialeko kultur intereseko ondasun deklaratu dezaten.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura eta Kiroleko Batzordean eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu Vasco-Navarro trenbideko Nafarroako Foru Komunitateko tartea ondare materialeko kultur intereseko ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera ematea.

Katalogazio horrek erraztu egiten du kontserbatu, hobetu eta planak eskuratzeko aukera, bai eta zaharberritzeko eta kontserbatzeko finantzaketa ere.

Ezin konta ahala dira “Trenico” zeritzonaren balioak, eta, beraz, beharrezkoa ikusten dugu kultura-babesa emateko figura bat eta espedienteari hasiera ematea, horrela Vasco Navarro trenbideari lotutako era guztietako ondasunak babestu eta sustatze aldera. Figura horrek balioko digu aurreko mendeko azpiegitura hori –gaur egun Bide Berde bihurtua– babesteko, eta zeharkatzen zituen eskualdeen egituraketari eta garapen sozial eta ekonomikoari lagunduko dio. Gaur egun –lehen esan dugun bezala–, plataforma birmoldatu

eta Bide Berde bihurtu da, erabilera ludiko eta turistikoekin, eta horri esker, Vasco-Navarroak oraindik ere aukera ematen du paisaiak, tokiak eta pertsonak ezagutzeko, baita lurraldearen garapen ekonomikoaren alde egiteko ere, ikuspuntu jasangarri eta tokikoarekin.

1879. urtean hasi ziren izapideak Espainiako Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa probintziak lotuko zituen trenbidea eraikitzeke.

Lehen etapan, The Anglo-Vasco-Navarro Railway Company Limited konpainiaren kudeaketapean, proiektuaren idazketa egin zen.

Alejandro Mendizábal Peña ingeniariaren zuzendaritzapean, Gasteiz-Lizarrak tartea eraikitzen hasi ziren. Lanak 1919ko irailaren 8an hasi ziren eta 1927ko irailaren 23an inauguratu zen. Bertan Espainiako Gobernuak lehendakari Miguel Primo de Rivera egon zen. Inaugurazio-trenaren tren-makina Bartzelonako La Maquinista Terrestre y Marítima enpresan egin zuten.

Emakumeen presentziari dagokionez, Vasco-Navarro aitzindaria izan zen, langileen artean emakumeak baitzeuden; urterik onenetan guztira 400 langile izan zituen, eta kopurua pixkanaka murrizten joan zen; enpresak ateak itxi zituenean 200 langile zituen. Emakume langile eta aitzindari horiek geltokiko arduradunaren lanpostuan aritu ziren, geltoki txikietan, baina beti bazuten erantzukizunen bat.

Nafarroako tartea

1920tik 1927ra eraiki ziren Gasteiz eta Lizarrak lotu zituen linearen 69 kilometroak; Espainiak Estatuak egin zituen.

69 kilometro horietatik, 27k Nafarroa zeharkatzen dute. Aukera paregabea Estellerrira eta bere kultura eta tren-ondare aberatsa ezagutzeko ikuspuntu desberdin batetik.

Linea horretako geltokiak proiektua diseinatu zuen ingeniariak berak diseinatu zituen, eta haien originaltasunagatik eta edertasunagatik nabarmentzen dira. Zapora erromantikoko estilo eklektikoa dute, eta batzuetan, “old Englihs” kutsua.

Estellerrira Zuñigatik sartzean, Ega ibaiaren gainean dagoen biaduktu itzel batean eta 1,5 kilo-

metro baino gehiago dituen tunel luze batean barna, Acedoko geltokira iristen gara; gero, tunel artifizial bat eta Granada de Egako geralekua pasa ondoren, Antzin agertzen zaigu; hain zuzen, bertako geltokiaren ondoan dago tren-tartean hirugarren zentral elektrikoa. Instalazio horiek osatzen zituzten eraikin guztiak kontserbatzen dira; geltokia udaletxea da gaur egun, eta zentrala zena egun zerbitzu-eraikin bat da, eta bertan daude udal-igerilekuak.

Murietako geltokiaren eraikinak dorre oktogonal bat du, eta gaur egun udaletxea da. Lizarrara iritsi aurretik, Zubieltan dago azken geltokia –egun erabilera partikularrekoa–, eta horren ondoren izen bereko zubia eta tunela daude. Bideak Ega gurutzatzen du Valdelobos zubitik, eta azkenekoz Los Llanos zubitik gurutzatzen du Ega; azken tunela zeharkatu eta Lizarrako hasierako geltokira iristen gara.

Lizarrako geltokia eraikin neoerromaniko aparta da, eta gogora ekartzen digu Nafarroako Erre-

ge-erreginen Jauregia, XII. mendekoa eta Lizarran bertan dagoena.

Alejandro Mendizábal ingeniariak Lizarrako geltokiaren diseinuan omenaldi bat egin nahi izan zion garai hartan Gobernuko lehendakari zenari; eraikinak zamatzeko nasak eta kotxe-tokiak ere bazituen. Geltokiko eraikinean –guztien artean zutik dirauen bakarra–, gaur egun autobus-geltokia, udal-egoitzak eta kafetegi bat daude bertan.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du izapide egokiak egin ditzan –dagokionean eta aurretik kasuan kasuko administrazio-espeditentea tramitatuta– vasco-navarro trenbideko Nafarroako tartea ondare materialeko kultur intereseko ondasun deklaratu dezaten.

Iruñean, 2022ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **10-22/MOC-00108. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan irizpide geografikoa ken dezan jaioberrien eta haurren ospitalearteko lekualdaketetarako.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan irizpide geografikoa ken dezan jaioberrien eta haurren ospitalearteko lekualdaketetarako.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Idazki hau sinatzen dugun talde parlamentarioek, Nafarroako Gorteetako kide izanik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2021eko urtarrilean, argitara eman zen pediatriako zainketa intentsiboetako, neonatologiako, pediatriako larrialdietako eta larrialdi-medikuntzako espainiar elkartearen jarrera, eta horiek gomendatzen dute ospitalearteko garraioan espezializatuta dauden pediatriako eta haur jaioberrien garraioko unitateak ezartzea, ebidentziek agerian utzi baitute konplikazioak eta heriotza-tasa murriztu egiten direla ospitaleratu eta hurrengo 28 egunen barruan horrelako unitateek egiten dituzten lekualdaketetan, espezializatu gabeko unitateek egiten dituztenekin alderatuta.

Nafarroan, kasu larrietan, 2019an finkatutako protokoloak bermatzen du, egoera larrian dau-

den jaioberriak eta haurrak lekualdatzean, Iruñeko Osasun Alorreko langile espezializatuak lagunduta joanen direla horiek, eta horrek desberdintasun-egoera eragiten du Lizarra eta Tutera eremuetako jaioberri eta hurrei dagokienez, egoera larrian egon eta ospitalearteko garraioa behar dutenean.

Egungo protokoloak ebidentzia zientifiko onenera egokitzeak, foru erkidegoko osasun-alorreko baliabideen ezaugarriekin bat, eta antolaketan, prestakuntzan eta baliabideetan hobekuntzak egiteak ekarriko du kalitatea hobetzea, bai eta eraginkortasuna, pazienteen segurtasuna, langileen konfiantza eta familien eta langileen asebetetzea ere.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan irizpide geografikoa

kentzera jaioberrien eta haurren ospitalearteko lekualdaketetarako, ekitatea bermatuz, irizpide klinikoetan oinarrituta.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du haurren eta jaioberrien lekualdaketarako protokoloak modu etengabea aldatzera, eta protokolo horien emaitzak ebaluatzen, ahalik eta kalitate eta eraginkortasun handienak bermatuko dituzten baliabideak, esku-hartzeak eta antolaketa-ereduak finkatzeko.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aztertzen zer aukera dauden haurren eta jaioberrien ospitalearteko garraio espezializatuko unitate bat sortzeko.

Iruñean, 2022ko azaroaren 23an.

Foru parlamentariak: Cristina Ibarrola Guillén, Ana Ansa Ascunce, Txomin González Martínez eta Marisa de Simón Caballero

---

## **10-22/DEC-00057. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak lan egingen du desgaitasuna duten pertsonen eskubideak urra ez daitezen, oinarri hartuta Giza Eskubideak eta,

zehazki, Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Ituna.

3. Nafarroako Parlamentuak ekimenak sustatuko ditu desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea eta gizarteratzea hobetzeko, baita haien parte-hartze soziala ere eskubide osoko herritar gisa".

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**10-22/DEC-00058. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu konpromiso irmoa duela eta babesten duela trafiko arloko transferentzia, Foru Hobekuntzaren esparruan.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du konpromiso irmoa duela eta babesten duela trafiko arloko transferentzia, Foru Hobekuntzaren esparruan”.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**10-22/POR-00368. Galdera, Espainiako Gobernuak Félix Huarte nafarrari Lan Merezimenduaren Domina kentzeari buruzkoa.***CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuak Félix Huarte nafarrari Lan Merezimenduaren Domina kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuko lehendakariak Espainiako Gobernuak Félix Huarte nafarrari Lan Merezimenduaren Domina kendu izanari buruz, Gobernu zentralak berak diktadura frankistaren "errepresio-aparatu"-aren kideztat jo baitu hura?

Iruñean, 2022ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

**10-22/POR-00369. Galdera, Tracasa Diversari buruzkoa.***AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Tracasa Diversari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak ahoz erantzun dezan 2022ko abenduaren 1ean eginen den Legebiltzarraren Osoko Bilkuran:

Nafarroako Gobernuaren Tracasa Instrumental eta Tracasa Global enpresa publikoek Tracasa Diversa lantaldea sortu dute, xede duena agerian uztea bi enpresek aniztasunarekin duten konpro-

misoa, bai eta benetako %100eko inklusioarekin dutena ere, gizarte osoa ordezkatuta egon dadin, eta pertsonen balioa eta talentua ikusarazteko, haien jatorria, adina, sexu-orientazioa, generoa edo gaitasunak edozein direla ere.

Zer lan ari da egiten departamentua bera Tracasa Diversak azpimarratutako arrakalak murrizteko?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an.

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **10-22/POR-00370. Galdera, erregimen frankistari laguntza edo sostengua eman zietenei ohoreak eta kondekorazioak kentzeari buruzkoa.**

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, erregimen frankistari laguntza edo sostengua eman zietenei ohoreak eta kondekorazioak kentzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkartearen eledun Mikel Buil jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren

babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak abenduaren 1eko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Podemos-Ahal Duguk proposamen bat aurkeztu zuen erkidegoaren egoerari buruzko azken eztabaidan, eta onetsi egin zen. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahalik eta lasterren eta erabakitasunez bultza dezan berriz aztertu daitezela –oraindik ere ez baita egin– Nafarroako erakundeek erregimen frankistari emandako babes edo laguntzaren ondorioz onura ekonomiko handiak –edo bestelakoak– lortu zituzten agintari eta pertsona guztiei egindako omenaldi, aintzatespen eta kondekorazio oro.

Aurreikuspenen arabera, noiz kenduko dira kondekorazio eta aintzatespen horiek?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

## 10-22/POR-00371. Galdera, COP27an hartutako akordio eta konpromisoei eta haiek Nafarroan ezartzeari buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako galdera, COP27an hartutako akordio eta konpromisoei eta haiek Nafarroan ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aur-

kezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2022ko azaroaren 6tik 18ra bitarte, COP 27 (klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen 2022ko Konferentzia) egin da Sharm el Sheij hirian (Egipto).

Han egon da Nafarroako Gobernuaren ordezkari bat, Mikel Irujo kontseilaria buru zela, zenbait forotan parte hartzeko eta ekimen batzuekin bat egiteko. Horri buruz, parlamentari honek galdera hau egiten du:

- Zein dira COP27 konferentzian izenpetutako akordio, energia-trantsizioaren alorreko aurrerapauso eta hartutako konpromiso nagusiak, eta noiz eta zer tresna zehatzen bidez gauzatuko dira Nafarroan?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

## 10-22/POR-00372. Galdera, hirugarren adinaren sektorearen hitzarmen kolektibo bat onesteari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, hirugarren adinaren sektorearen hitzarmen kolektibo bat onesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Zer ekimen ari da egiten Nafarroako Gobernua hirugarren adinaren sektorearen hitzarmen kolektibo bat onesteko bidea emanen duen akordio bat lortze aldera?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

## 10-22/POR-00373. Galdera, Larrabideko atletismoaren arloko jarduketetarako 4 milioi euroko transferentziari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Larrabideko atletismoaren arloko jarduketetarako 4 milioi euroko transferentziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Estatuko aurrekontu orokorren zuzenketen izapidearen ostean Larrabideko atletismoaren arloko jarduketetarako onetsitako 4 milioi euroren transferentziari dagokionez, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

- Zer jarduketa-sekuentzia du aurreikusita Nafarroako Gobernuak partida hori gauzatzeko?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## 10-22/POR-00374. Galdera, Nafarroari trafikoa transferitzea dela-eta Madrilgo Erkidegoko lehendakariak egindako adierazpenei buruzkoa.

*RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroari trafikoa transferitzea dela-eta Madrilgo Erkidegoko lehendakariak egindako adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzorriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer gogoeta egiten du Nafarroako lehendakariak Ayuso lehendakariak trafikokoaren transferentziari buruz egindako adierazpenen gainean?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

## **10-22/POR-00375. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmeneko maskara biltegiatuei irteera emateko egindako ekintzei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmeneko maskara biltegiatuei irteera emateko egindako ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer egintza gauzatu dituzu Nafarroako Gobernuako lehendakari gisa Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko akordioaren esparruan biltegiatutako maskarek irteera emateko?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **10-22/POR-00376. Galdera, Nafarroako kirolean indarkeria prebenitzeari buruzkoa.**

*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako kirolean indarkeria prebenitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken asteotan Nafarroako kirolean eta bereziki Nafarroako oinarriko kirolean gertatzen ari diren indarkeria-egoeren harira:

Zer ekintza ari da egiten Gobernua, Nafarroako Kirolaren Institutuaren bidez, horrelako ekintzak ekiditeko gure erkidegoan?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

## **10-22/POR-00377. Galdera, Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateari trafikoaren eskumena eskualdatzeko EH Bildurekin egindako akordioari buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateari trafikoaren eskumena eskualdatzeko EH Bildurekin egindako akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer iruditzen zaio Nafarroako Gobernuak lehendakariari Espainiako Gobernuak EH Bildurekin adostea, Estatuko aurrekontu orokorretarako babesa ematearen truke, noiz eskualdatuko zaion trafikoaren gaineko eskumena foru komunitateari?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an.

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **10-22/POR-00378. Galdera, albaramendu-delituaren aldaketari buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, albaramendu-delituaren aldaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer iritzi du Nafarroako Gobernuak lehendakariak albaramendu-delituaren aldaketari buruz?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## 10-22/POR-00379. Galdera, etxebizitza-parkea birgaitzeko laguntzen Biziberri planari buruzkoa.

*ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, etxebizitza-parkea birgaitzeko laguntzen Biziberri planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak abenduaren 1eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aurtengo maiatzetik ekainera bitarte abiarazi zuen Biziberri plana, etxebizitza-parkea birgaitzeko laguntzena, zeinetan sartu baitziren Next Generation funts europarretako Suspertze eta Erresilientzia Mechanismoetatik (SEM) etorritako aparteko laguntzen programa batzuk.

Hori dela-eta, ahozko galdera hau aurkezten dut:

Plana abiarazi zenetik lehen sei hilabeteak igaro diren honetan, zer erantzun eta zer emaitza lortzen ari dira deialdi berri horiek?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

## 10-22/POR-00380. Galdera, HUB Eatex Food programari buruzkoa.

*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, HUB Eatex Food programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Javier

Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela gutxi abiarazi da Eatex Food HUBa, funts europarrekin finantzaturako ekosistema bat, nekazaritzako elikagaien enpresa nafarrei berrikuntza garatzeko aukera ematera bideratua. Ekimen hori erabat aitzindaria da Espainian.

Nola gauzatzen da programa hori, eta zer onura jasotzen du Nafarroak?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen



## 10-22/POR-00381. Galdera, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 9ko 23/2018 Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa.

*BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 9ko 23/2018 Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak abenduaren 1eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak berriki iragarri du aurtengo abenduan zehar aurkeztuko diela sindikatuei Foruzaingoaren jardunaldi eta ordainsarien erregelamendua, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legeari jarraikiz.

Hori dela-eta, ahozko galdera hau aurkezten dut:

Nola gauzatuko da erregelamendu-garapen hori?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

## 10-22/POR-00382. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. faseko proiektua exekutatzeko finantzaketa erduei buruzkoa.

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen 2. faseko proiektua exekutatzeko finantzaketa erduei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak abenduaren 1eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak Nafarroako Ubidearen 2. fasearen proiektua dagoeneko jaso duen honetan, eta kontuan hartuta lanak datorren urtean hasten ahal direla 249,7 milioi euro inguruko kostuz, zer finantzaketa-eredu aurreikusten dute Nafarroako Gobernuak eta Estatuko Gobernuak, azpiegituraren fase berri hori burutzeko?

Iruñean, 2022ko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet



## **10-22/POR-00383. Galdera, Iruñeari hiriburutza agiria emateari buruzkoa.**

*YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztutako galdera, Iruñeari hiriburutza agiria emateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zuzenduko al du bere jarrera, eta itzuliko al dio Iruñari Hiriburutza agiria, inoiz kendu izan behar ez ziona?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

## **10-22/POR-00384. Galdera, Espainiako Gobernuarekiko akordioari buruzkoa, Foruzaingoaren jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien erregelamendu-proposamena Foruzaingoaren ordezkari sindikalei aurkezte aldera.**

*JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuarekiko akordioari buruzkoa, Foruzaingoaren jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien erregelamendu-proposamena Foruzaingoaren ordezkari sindikalei aurkezte aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan datza Espainiako Gobernuarekin adostu duzun edo adostea aurreikusita duzun akordioa, Foruzaingoaren jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien erregelamendu-proposamena Foruzaingoaren ordezkari sindikalei aurkeztu ahal izatekoa?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an.

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

## **10-22/POR-00385. Galdera, “Bai soilik da bai” legeari buruzkoa.**

*ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztutako galdera, “Bai soilik da bai” legeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kezkatzen al zaitu jakiteak zigor-murrizketak eta kartzelatik ateratzeak gertatzen ari direla “Bai soilik da bai” legearen ondorioz, edo, aitzitik, lege ona dela iruditzen zaizu?

Nafarroan, 2022ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

## **10-22/PES-00348. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen obrak lizitatzeari buruzkoa.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen obrak lizitatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Landa Garapeneko kontseilariak ziurtatu al dezake 2023an Nafarroako Ubidearen 2. faseko lanak lizitatuko direla?

Iruñean, 2022ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## **10-22/PES-00349. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen proiektuari buruz hitz egite aldera Ebroko Konfederazio Hidrografiko lehendakariarekin egindako bileran Lurralde Kohesiorako kontseilaria egoteari buruzkoa.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen proiektuari buruz hitz egite aldera Ebroko Konfederazio Hidrografiko lehendakariarekin egindako bileran Lurralde Kohesiorako kontseilaria egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zergatik egon da Bernardo Ciriza Lurralde Kohesiorako kontseilaria, eta ez Itziar Gómez Nafarroako ubidearen arduraduna eta kontseilari eskuduna, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen

proiektuari buruz hitz egite aldera María Dolores Pascual CHEko lehendakariarekin egin den bilkuran? Proiektu hori aste honetan iritsi zaio CHE-Ebroko Konfederazio Hidrografikoari, aztertu eta jendaurrean jartzeko izapidea egin dezan, Transizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak aurrez egindako gainbegiratua bukatu ostean.

Iruñean, 2022ko azaroaren 21ean.

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **10-22/PES-00350. Galdera, Frankismoarekin lotutako pertsonen gainean Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak onetsitako behin-behineko erroldari eta NUPEk pertsona horien beraien gainean prestatutako izendegiari buruzkoa.**

### *ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Frankismoarekin lotutako pertsonen gainean Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak onetsitako behin-behineko erroldari eta NUPEk pertsona horien beraien gainean prestatutako izendegiari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamendu indardunean ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuak erantzun ditzan:

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako

herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen 5. artikulua Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Tekniko bat sortu zuen, gai horretan eskumena duen Departamentuaren mende, gaur egun, Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuaren mende.

Foru lege horren 11. artikulua honakoa ezartzen du: "Nafarroako Gobernuak, bere eskumenez baliatuz, behar diren neurriak hartuko ditu altxamendu militarra, Gerra Zibila eta diktadurako errepresioa pertsonalki nahiz kolektiboki goratzeko armariak, insigniak, plakak eta gainerako objektu edo aipamenak kentzeko. Neurri horien artean, dirulaguntzak edo laguntza publikoak kentzea ere sartu ahalko da".

Era berean, foru lege horren 12. artikulua hauxe adierazten du: "Nafarroako administrazio publikoek, foru lege hau argitaratu eta urtebeteko epean, berraztertu eta baliogabetu egingen dituzte erregimen frankistarekin zerikusia izandako pertsonen jasotako sariak, izendapenak, ohorezko tituluak eta gainerako goraipamenak, eta, urtebeteko epe horretan, behar diren zuzemenak egingen dituzte aurreko horiei buruzko ziurtagiriak egiteko. Ziurtagiri horiek publiko egingen dituzte administrazio desberdinek, eta Espainiako Gobernuari igorriko dizkiete".

Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak, 2016ko azaroaren 25ean egin-

dako bilkuran, ikur frankisten behin-behineko errolda onetsi zuen, bai eta ikur horiek kentzeari buruzko gomendioak ere, eta Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendariaren esku utzi zuen hura Nafarroako Gobernuari helaraztea. Errolda hori egin aurretik, NUPi eskatu zitzaion frankismoarekin lotutako pertsonen izendegi bat egin zezala. Izendegi horretan frankismoarekin zerikusia izan zuten 29 pertsona ageri ziren. Hala ere, azkenean Batzorde Teknikoak 2016ko azaroaren 25ean onetsi zuen errolda-proposamenen zenbait pertsona desagertu ziren, horien artean Felix Huarte Goñi eta Miguel Javier Urmeneta Ajarnaute izenak, zeinei Nafarroako Gobernuak Nafarroako Domina eman baitzuen 2014an, eta horien ordeaz, antza, beste izen batzuk jarri ziren.

Nafarroako Gobernuak, 2016ko azaroaren 30eko erabakiaz, ikur frankisten behin-behineko erroldaren jakinaren ganean zegoela adierazi zuen eta hura berretsi zuen, eta onartu egin zituen ikur horiek kentzeko gomendioak, Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak onetsiak.

Erabaki horien III. eranskinean, "Frankismoarekin lotutako pertsonak" izenekoan, honako 23 pertsona hauek ageri ziren: Franco Bahamonde, Francisco; Mola Vidal, Emilio; Sanjurjo Sacanell, José; Primo De Rivera, José Antonio; Domínguez Arévalo, Tomás (Conde de Rodezno); Luis Orgaz y Yoldi; José Solchaga; José Iruretagoyena; Francisco García Escamez; Rafael García Valiño; Ricardo Rada; José Arellano Dihinx; Jesús Clemos; Félix Marsal; Los Arcos Fernández, José; Sagardoy Allo, Matías; Valero Bermejo, Luis; Arrese Magra, José Luis; Elola Olaso Idiacaiz, José Antonio; Pascual Viscor, Ángel María; Ruiz De Alda Miqueleiz, Julio; eta Eusa Razquin, Víctor.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

Zein pertsona ageri ziren NUPek egindako frankismoarekin lotutako pertsonen izendegian? Zerrenda osoa eskatzen dut.

Nork hartu zuen aipatu erroldaren zerrendan zeuden zenbait pertsona kentzeko erabakia, edo, hasieran agertu ez eta gerora Batzorde Teknikoak 2016ko azaroaren 25ean onetsi zuen ikur frankisten behin-behineko erroldan eta ikur horiek kentzeari buruzko gomendioetan gehitu ziren pertsonak sartzekoa?

NUPek egindako izendegian agertzen ziren zein pertsona kendu ziren erroldatik? Izendegian agertzen ez ziren zein pertsona sartu ziren Batzorde Teknikoak onetsitako behin-behineko erroldan?

Zeintzuk izan ziren pertsona horiek erroldatik kentzeko arrazoiak horiek izendegian agertu arren? Txosten teknikorik egin al zen erroldan sartu ez izana justifikatzeko?

Felix Huarte Goñi eta Miguel Javier Urmeneta Ajarnauteren kasu zehatzetan, zer arrazoi eman ziren eta nork eman zituen behin-behineko erroldan ez sartzeko?

Bakearen eta Bizikidetzaren egungo zuzendari nagusiak publikoki adierazi du behin-behineko errolda berraztertu behar dela Memoria Demokratikoari buruzko urriaren 19ko 20/2022 Legearen edukia kontuan izanik. Zer irizpide erabili behar dira berrazterketa horretan? Berrazterketa horretan jasotzen al da Felix Huarte Goñi eta Javier Urmeneta Ajarnaute errolda horretan sartzeko aukera?

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Mahaiko erabakia, Nafarroako Jarduera Ekonomikoko Lehen Sektoreri Nafarroako Parlamentuko Domina emateko.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehen Sektorea motor ekonomikoetako bat da, bai eta nortasun-ezaugarria ere, Nafarroako Foru Komunitatean. Gure tokiko produktuak, Nafarroako jatorri-deiturak eta gure adierazpen geografiko babestuak erreferente izan dira beti gure erkidegoan zein hortik kanpo.

Pandemiak eta osasun- eta ekonomia-krisialdiek, produktu jakin batzuen hornidura falta ere eragin baitute batzuetan, agerian utzi dute oso garrantzitsua dela nekazaritzako elikagaien sektore sendo bat izatea, bai eta garapen jasangarrirako helburuekin bat datorren ekonomia jasangarri bat ere.

Nafarroak beti izan du nekazaritzako elikagaien sektore sendoa, eta erakunde publikoek urte asko daramatzate gure produktuei balioa ematen, kalitatezko produktuen bereizgarri diren jatorri-deituren, adierazpen geografiko babestuen, zigiluen eta marken bidez.

Alabaina, ezin esan sektorean dena positiboa denik. Banaketa, belaunaldi-ordezkapenaren nolabaiteko falta eta kostu energetikoaren igoera abeltzainei eta nekazariei eragiten dieten faktoreak dira, eta erakundeek aurre egin behar diete horiei, sektorearekin elkarlanean.

Lehen Sektoreak lurraldea egituratzen du, eta hura sustatzea despopulazioaren kontra borrokatzea, ingurumena zaintzea eta berrikuntzak egitea da, eta, nola ez, gure ekonomiaren funtsezko atal bat da.

Horregatik guztiagatik, laster Nafarroako Foru Komunitatearen egunaren inguruan egingen diren ekitaldien harira, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluari jarraikiz, honako hau ERABAKI DA:

1.- Nafarroako Parlamentuaren Domina ematea Nafarroako Jarduera Ekonomikoko Lehen Sektoreri; Domina emateko ekitaldia Osoko Bilkuren aretoan egingen da abenduaren 2an, ostiralarekin, 11:00etan.

2.- Erabaki honen berri ematea Nafarroako Jarduera Ekonomikoko Lehen Sektorerearen ordezkari.

3.- Erabaki honen berri ematea Idazkaritza Nagusiaren Protokolo Atalari eta Zerbitzu Orokorretako burutzari.

4.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



